

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2125

716/2020 EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 13koa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Jon Imanol Argote Achalandabaso jauna zuzendariorde mediko kargutik kendu egin den, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan.

1893/2019 Ebazpenaren bidez, urriaren 7koa, Jon Imanol Argote Achalandabaso jauna zuzendariorde mediko izendatu zen Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jon Imanol Argote Achalandabaso jauna zuzendariorde mediko kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko maiatzaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko maiatzaren 13a.

Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendari gerentea,
EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA.